

**Gipuzkoako
Aldizkari
Ofiziala**



**Boletín
Oficial de
Gipuzkoa**

62

2020ko apirilaren 1a, asteazkena

1

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

134/2020 Foru Agindua, martxoaren 30ekoa, Balore, aseguru eta errenten urteko aitorten informatiboa aurkezteko 189 eredia onartzen duen martxoaren 5eko 91/2020 Foru Agindua aldatzen duena.

Martxoaren 5eko 91/2020 Foru Aginduaren bidez (2020ko martxoaren 10eko 47 zenbakiko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua) onartuta gelditu zen balore, aseguru eta errenten urteko aitorten informatiboa aurkezteko 189 eredia.

Foru agindu horren eranskinean akats bat hauteman denez 2. motako erregistroen zatian, zuzendu egiten da.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Martxoaren 5eko 91/2020 Foru Agindua, Balore, aseguru eta errenten urteko aitorten informatiboa aurkezteko 189 eredia onartzen duena, aldatzea.

Aldatu egiten dira «2. motako erregistroa: aitortuaren erregistroa» B ataleko 96-107 posizioak, betiere Balore, aseguru eta errenten urteko aitorten informatiboa aurkezteko 189 eredia onartzen duen martxoaren 5eko 91/2020 Foru Aginduaren eranskinean. Honela gelditzen dira idatzita:

«— Posizioak: 96-107.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Baloreen kopurua.

Entitate juridikoen kapitalean edo funts propioetan aitortuak dituen akzio edo partaidetza kopuru osoa adieraziko da –merkatu antolatu batean negoziatutakoena–, bai eta merkatu antolatuetan negoziatutako kapital propioak hirugarrenei lagatzea adierazten duten

baloreena edo inbertsio kolektiboko erakundeen kapital sozialeko edo ondare funtseko akzio edo partaidetzena ere.

«Balorearen gakoa» eremuan (81 posizioan) «A», «B» edo «C» jarri denean bakarrik beteko da eremu hau.

Eremu hau bitan banatuta dago:

96-105. Baloreen zati osoa.

106-107. Baloreen zati hamartarra (ez badu, zeroak jarri).

Era berean, aitortuak asko direnean, erregistro bakoitzean adieraziko da haietako bakoitzari egotzitako baloreen kopurua, beren partaidetza portzentajearen arabera.»

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2020ko martxoaren 30a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(1716)